


GERNIKA





- 4** · Bere iragana ahaztu gabe etorkizunari begiratzen dion herri bat
- 6** · Gernikako Arbola
- 8** · Batzarretxea
- 10** · Gernikako astelehenak
- 14** · 1937-04-26
- 16** · Denboran zehar dirauen historia
- 18** · Abangoardiak eta arteak gure iragana gogoratzen digute
- 20** · Urdaibai, natura oinez Gernikatik
- 22** · Ezinbesteko bizipenak



"Gure Aitaren Etxea" E. CHILLIDA

Gernika zen eta da, aspaldi-aspalditik, sinbolismo eta garrantzi handiko lekua euskaldunontzat, demokrazia eta eskubide historikoen ikurra baita. Euskadiri ezin zitzaion kalte handiagorik egin, lehenengo euskal Lehendakaria bere karguaren zina Gernikako Arbolaren azpian egiten ikusi zuen hiria suntsitzea baino.

Nazioarteko prentsak Gernikako bonbardaketaren berri eman zuen; izan ere, garrantzi handia eta berebiziko inpaktua zituen albiste bat zen, kontuan hartuta halako helburu txiki eta babesgabe baten aurka zuzendutako erasoaren indar neurrigabea. Gertaera hau inspirazio-iturria izan zen Picassorentzat, "Guernica" margolana egiteko: XX. mendeko margolan ospetsuena, gerrako izugarrikeria erakusten duen maisulan bat.

1987ko apirilaren 26a, bonbardaketaren 50. urteurrena, Bake eta Adiskidetzaren Kulturaren balioen garapenean hiritik lan egiten hasteko abiapuntua izan zen. Ibilbide hori UNESCOk emandako nazioarteko aitortzan geratu da islatuta, zeren Gernika-Lumori "Bakearen aldeko Hirien Saria" eman zion, Europako eskualdean. 2005az geroztik, "Bakearen eta Adiskidetzaren aldeko Gernika Saria" ematen da urtero. Horren helburua da Bakearen Kulturaren balioak sustatzen jarraitzea *bere iragana ahaztu gabe etorkizunari begiratzen dion euskal gune txiki honetatik.*

Arbola Zaharra tenplete biribil baten azpian kontserbatuta, Batzarretxearen ondoan.

Gernikako arbola

Euskaldunon ikur unibertsalena

Gernikako Batzarretxea eta Arbola

Euskal Herriaren historiaren ikur bizidunak dira. Bizkaiko parlamentu historikoaren egoitza izanik, eraikin hau Euskal Herriko lurralde guztien topagunea da, haritzarekin batera, tradizio kultural eta etnografiko berberak batzen dituelako.

- Jaurreriaren lehenengo urteetan, bizkaitarrak batzarretan bildu ohi ziren, Bizkaiko zenbait lekutako haritzen gerizpean; gero, baina, leku bakar batean eta arbola bakar baten azpian biltzeko ohitura hartu zuten: **Gernikako Arbola**.
- Antzinako Lumoko elizatean, eta Gernikako hiribildua 1366an fundatu baino lehen, baziren baseliza bat eta Gernikazarra izeneko harizti bat, oraingo hiriari izena eman ziona. Harizti horretatik, baina, mende batzuk igaro eta gero Gernikako Arbolak soilik iraun du. Baselizatik sortu zen Antiguako Andra Mariaren Zin Egiteko Eliza, hau da, oraingo **Batzarretxea**.
- Lorategian, tenplete batean babestuta, **Gernikako Arbola**ren enbor ihartu zaharrena kontserbatzen da, baina ez da lehenengoa izan. Arbola bizirik mantentzeko modu bakarra ugalketa da; horregatik, haritz bat ihartzen denean, haren ondorengo bat landatzen da.
- Oraingo **Gernikako Arbola** nahiko gaztea da, zeren 2015ean landatu zen, beraren aurrekoa leku horretan 10 urtez soilik egon ondoren. Bi horien aurretik beste arbola bat egon zen, eta horrek bai iraun zuen 140 urte baino gehiago, eraikin ospetsu horren gerizpean.

Gernikako Batzarretxea

“Sustrai sendoak dituen milaka urteko herri bat...”



*E*rdi Aroaz geroztik, hiriko **Batzarretxean** batzar ugari egiten ziren, Bizkaiko lege eta foruak lantzeko. Hori gertatzen zenean, Jaurerriko udalerri bakoitzak ordezkari bat bidaltzen zuen Gernikara, herri bakoitzean zeuden arazoez hitz egiteko. Parlamentu-batzar haietan hartzen ziren erabakietatik abiatuta, lege balioa zeukan araudi bat sortzen zen, gero indarrean jartzeko Bizkaiko Jaurerrian. Bizkaiko Jaunak lege horiek errespetatu behar zituen.



- XIV. mendetik aurrera, Gaztelako Erregeak Bizkaiko Jaunaren titulua ere bazuen, eta, hortaz, Batzar Nagusietako saioak gidatzen zituen, baina ez Gaztelako Errege bezala, Bizkaiko Jaun bezala baizik. Bitxikeria gisa, aipatzekoa da Errege Katolikoak Gernikara etorri zirela Jaurerriko Batzarretan onartutako legeen zina egitera, fideltasunez beteko zituztela aginduz. Bada, une hori osoko bilkuren barruan ikusgai dagoen margolan batean dago jasota.

- **Batzarretxean**, Arbolaren aurrean, garrantzi handiko ekitaldiak egiten dira, hala nola Lehendakariaren eta Bizkaiko Diputatu Nagusiaren kargu-hartzea. Horri dagokionez, handik gertu dagoen monolito batean, plaka batek gogoratzen ditu Jose Antonio Agirrek 1936an esandako hitzak, lehenengo Lehendakaria izateko zina egin zuenean. Hitz horiek protokolo-formula bihurtu dira haren ondorengoentzat.



Gernikako *astelehenak*

Gernikan dago Euskadin geratzen diren merkatu tradizional urrietako bat; 650 urtetik gorako historia du, Gernika hiribildu gisa fundatu zen unean hasi baitzen. Sorrerako Hiri Gutunak astean behin merkatu bat egiteko pribilegioa eman zion Gernikari, 1366 urtean. Gaur egun, Busturialde osoko nekazaritza-produktuen erosle eta saltzaileak biltzen dira Gernikako merkatuan astelehenero. Astelehen guztietan giro koloretsu eta alaitsua nagusitzen da, eta orain dela gutxira arte, gainera, eguna zesta puntako partidekin amaitzen zen Jai-Alai frontoian. Pilotari profesional askoren ustez, berau da munduko frontoirik onena. Eraikin hau Bizkaiko XX. mendeko arkitektura modernoaren adierazle nagusietako bat da, Secundino Zuazoren maisulan bat, hain zuzen ere.



Antzinako esaera batek dioenez, Gernikako astelehena goatzeko egun bat da:

“
lunes gernikes, kolperik ez
”

Historia apur bat...



Gernika – Lumo gure udalerraren izen ofiziala da, baina jende askok ez daki zein den Gernikak duen “abizen” horren jatorria. Erdi Aroan, Gernika Lumoko Elizateko auzo bat besterik ez zen, zehazkiago Lumoko portua. Gune horretatik garrantzi handiko merkataritza-ibilbide batzuk pasatzen ziren. Gernikaren egoera estrategiko horrek eta beste faktore batzuek bultzatuta, garai hartako Bizkaiko Jaunak, **Don Tello Kondeak**, hiribildu titulua eman zion Gernikari, eta horren bidez Lumoko **Elizate** bereizi zuen; horren eraginez, Lumok bere gune garrantzitsuenetako bat galdu zuen, eta baita bere lurraldearen zati handi bat ere. Hiribildu titulua eman zenez geroztik, Gernikaren eta Lumoren arteko liskarrak hasi ziren. Lumoko Elizatearen eta Gernikako Hiribilduaren arteko auziak 1882ko urtarrian amaitu ziren, urte horretan batu egin zirelako biak, udal unitate bakarra osatzeko.

Azken Astelehena

Urriko Azken Astelehenean urteko nekazaritza-azoka garrantzitsuena egiten da Gernikan, Euskal Herriko azoka garrantzitsuenetako bat hain zuzen. Euskal merkatu tradizional bat da, hiriko erdigune osoa hartzen duena eta urtero milaka pertsona biltzen dituen, salgai dauden produktuen kalitateak eta eguneko jai-giroak erakarrita.



Urriko Azken Astelehenaz gozatzeko gida:

1

Etor zaitez goiz eta, ahal izanez gero, garraio publikoan.

2

Egon zaitez prest ibiltzeko eta postu guztietatik pasatzeko -300 baino gehiago-, aukeran dauden delicatessenak dastatzeko eta nekea gainditzeko, jaia gauera arte luzatzen da eta.

3

Etor zaitez gosez eta gauza tipikoak dastatzeko gogoz, hala nola taloa txorizo edo odolostearekin eta Idiazabal gaztazko pintxoak, hori guztia txakolin on batez edo botila bat sagardoz bustia. Ez zaitez pos-trerik gabe geratu: ahoari euskal pastel zati baten plazera eman.



Lehenengo Astelehena

Euskadiko Arraza Piriniarraren Lehiaketa abeltzaintza-azokaren egunean egiten da, Gernikako **Urriko Lehenengo Astelehenean**. Lehiaketak 100 abelburu baino gehiago biltzen ditu, zenbait kategoriatan sailkatuta. Bi egunez, Gernika lehen sektoreko erreferentziatzko gune bihurtzen da, eta okelaren ekoizpenera zuzendutako arraza baten erakusleho ere bai.

Egitaraua igandean hasi ohi da, abere onenen aukeraketarekin; astelehenean, berriz, sariak banatzen dira. Bi egunetan, gainera, azokak antolatzen ditu kalitatezko labela duen arraza horren okela dastatzeko saioak. Horrez gain, bertaratzen diren pertsonak beste produktu batzuk eros ditzakete abereak hartzen dituen karpa zabalaren inguruan kokatutako postuetan: sagardoa, txakolina, ogia, euskal pastela, gazta eta eskulanak.

"...tradizioa bizimodu"

1937-04-26

Gernika izan zen eskala handiko esperimentu militar bezala planteatutako bonbardaketa bat pairatu zuen lehenengo herria; horretarako, bonbak erabili ziren modu masiboan (31 eta 41 tona bomba bitarte jaurti ziren), Bigarren Mundu Gerran Europako beste leku batzuetan erabiliko zen eraso-plan bati jarraituz.

Gernikako Bonbardaketa 1937ko apirilaren 26an izan zen, astelehena, hau da, merkaturia zegoen egun batean. Egun horretako 16:20an, Andre Mariako Elizako kanpaiek herritarrak ohartarazi zituzten hegazkin etsaien etorreraz. Hegazkin horietako gehienak "Kondor Legio" alemaniarrenak ziren, eta beste batzuk "Aviazione Legionaria" italiarrenak. Bonbardaketaren base moduan erabilitako aerodromoak Gasteiz, Burgos eta Sorian kokatutakoak izan ziren. Abisuaren ostean, gernikarrak lasterka abiatu ziren hirian eraikitako babeslekuetara, eta bertan egon ziren ia lau orduz, bonbardaketa amaitu arte.

Etenik gabeko eraso bat izan zen, zeren ez zuen ia tarterik utzi erasoaldien artean. Bonbardaketa taktika honen arabera planifikatu zen:

- Aurrena, bonbaketariak eta ehiza-hegazkin batzuk erabili ziren, herritarrak ohartarazteko eta babeslekuetan sarrarazteko -babesleku batzuk hiriko erdigunetan zeuden-. Horren ostean, ehiza-hegazkinek biribilean egin zuten hegan, inork ere ihes egin ez zezan hiriko erdigunetik.
- Jaurtitako lehenengo bonbak 50 eta 250 kg bitarteko bomba apurtzaileak izan ziren, eraikinak suntsitzeko. Bonbak teilatuak apurtzen zituzten, eta lurrera jaistean krater erraldoiak sortzen zituzten. Hala, garai hartako etxeetako egitura osoa eta zurezko elementuak uzten zituzten agerian.



- Horren ostean, bomba su-eragileak jaurti zituzten. Bomba horiek 1 eta 2 kg bitarteko pisua zuten, altzairuz eginda zeuden, eta magnesio, aluminio eta zinkeko aleazio bat zuten. Beste metal batzuk ukitzean, aleazioak erreakzionatzen zuen eta ezin kontrolatuzko sua pizten zuen, 1.500 gradu zentigradotik gorako tenperaturekin. Horren ondorioz, Gernikan sute izugarri bat sortu zen. Hain izan zen handia, non kilometro askotara kokatutako herrietatik ere ikusi ahal izan baitzen.
- Azkenik, bizirik atera eta hiriko erdigunetik ihes egiten saiatzen ziren herritarrek ehiza-hegazkinen metrailaketa pairatu zuten: gainbehera bizian jaisten ziren hegazkinak, batzuetan 50 metrotik beherako altueraraino jaitsiz, ihesi zihoazenak tirokatuz. Hegazkinak Gernikako sarbideetan aritzen ziren, biribilean hegan egiten, herritarrak su-perimetroaren barruan itxita mantentzeko. Gernikako erdigunea oso kale estuez eta elkarri lotutako etxez osatuta zegoen, eta horrek erraztu egin zuen suaren hedakuntza.

Denboran zehar dirauren historia...

Alegria Jauregiak Euskal Herria Museoa hartzen du.

Batzarretxeak, Europako Herrien Parkeak eta Santa Klara Komentuak inguratuta, Museoak Euskal Herriaren historia azaltzen die bisitariei, beraren kultura eta tradizioen bitartez, tradizio horietako batzuk Gernikako Arbola bezain errotua egonda. Hala-ber, atal bat eskaintzen die Euskal Herriaren historiako pertsonaia ospetsuenei. Hori guztia marrazki, grabatu, margolan, maketa, kartografia eta itsas tresnen bitartez.



Bakearen Museoak


Gernika-Lumoko historiari eta Gerra Zibilar buruzko irakurketa bat eskaintzen du, bonbardaketaren episdioa eta gertaera tragiko hartatik bizirik atera zirenek eskaintzen diguten bake-lezioa erakutsiz, eta erasotzaileekin nola adiskidetu ziren azalduz. Horrez gain, munduan gertatutako beste adiskidetze eta bitartekotza batzuk ere erakusten dizkigu.

“Oroimenaren Ibilbidea” hiriko hainbat lekutan jarritako azalpen-panelez osatutako ibilbide bat da, bonbardaketatik bizirik atera zirenen testigantzak jasotzen dituena. Ibilbidean zehar bonbek suntsitu zituzten leku batzuetara eramaten doa bisitaria, hala nola merkatu plazara, antzinako udal frontoira edo tren geltokira. Ibilbideak geraldiki bat egiten du babesleku antiaereoak ikus ditzagun: Astrakoa, inguruko lantegietako langileek erabili zutena; eta Pasealekukoak, Gernikako herritarrek aire-erasoan bizi izan zituzten sentsazioak bizitzea ahalbidetzen duena.



Gure iragana gogoratzen diguten *abangoardia* eta *arte*a

“Guernica”. Mosaikoaren azuleju bakoitzak forma ematen dio Pablo Picassoren irudimenak sortu zuen puzzle paregabeari. Hiriak 1937ko apirilaren 26an pairatu zuen aire-eraso ikaragarrian dago inspiratuta. Mural zirraragarriaren azpian ikusten den inskripzioak gernikarren desioa adierazten du, hots, margolana Gernikan erakutsi ahal izan dadila. **“Guernica” Gernikara.**



“Suak Eragindako Agonia”, Nestor Basterretxea euskal eskultorearen obra, hegazkin aleman eta italiarrek hiri gainera jaurti zituzten lehenengo bonbak jausi ziren lekuan dago jarrita. 8 metroko altuera duen obra abstraktu bat da, “corten” altzairuz eginda eta xafla diagonal batzuez osatua. Xafla horiek erdiko pieza handi baten gainean elkartzen dira, bonben leherketaren une zehatz eta laugarria gogora ekartzeko xedez.

Eduardo Chillida eta Henry Mooreren eskulturez osatuta Europako Herrien Parkean dagoen monumentu-multzoak Bakearen Hiri gisa sinbolizatzen du Gernika-Lumo.


E. Chillidaren *“Gure Aitaren Etxea”* diseinatu zen euskal askatasunen ikurra ikusi ahal izateko beraren “leihotik”, hau da, Gernikako Arbola ikusi ahal izateko. Beraren ondoan, Henry Moore eskultore ingelesaren *“Large Figure in a Shelter”* obra dago. Eskultura hori, artistak II. Mundu Gerran hasi zuen “War Helmets” izeneko bildumaren zati da.



Gernikan zehar oinez



Jose Maria Iparragirre
“Gernikako Arbola”
abestiaren egilea.



Jose Antonio Agirre
Lehenengo euskal
Lehendakaria.

Urdaibai

Natura oinez Gernikatik...



GERNIKA-LUMO

2 Km

Urdaibaiko Biosfera Erreserba ingurumen aldetik oso interesgarria den esparru natural bat da, UNESCOk 1984an izendapen hori eman izanak erakusten duen bezala. Oka ibaiaren estuarioa, Biosfera Erreserbaren bihotzean kokatua, haren elementu erakargarrienetako bat da; izan ere, Euskal Autonomia Erkidegoan azalera handiena duen estuarioa da, eta ondoen kontserbatuta dagoena ere bai. Mila hektarea inguru ditu, marearteko zabalgunearen azpian, Laidako hondartzatik (Ibarrangelu) Gernika-Lumo hiriraino.

Gernikako erdigunetik oso gertu, goi-estuariotik doan ibilbide biribila hasten da. hamalau kilometro ditu, eta bi ertzak lotzen ditu oinezko eta txirrindularientzako pasabide baten bitartez. Horrek ahalbidetzen du Gernika-Lumotik Kortezubi eta Forura joatea, edo Murueta Puntako begiratokiraino. Estuarioa zeharkatzen duen ibilbide honetaz gozatzeaz batera, aukera izango duzu ikusteko nola egokitzen diren hango espezieak itsasgorara eta itsasbeherara. Orobat, natura gizakion erabilera eta aprobetxamenduekin elkarrekin bizitzetik eremu horretan sortutako paisaiak ikusi ahal izango dituzu.

Ez huts egin:

- **Urdaibai Bird Center**, naturaren museo handi eta bizidun bat, publikoari irekia hegaztien munduaz eta haien migrazioez gozatzeko. Ekipamendua bera paduraren gaineko behatoki paregabe bat da, eta Urdaibaiko Biosfera Erreserbaren bihotzean bertan dago kokatuta.



- **Ekoetxea Urdaibai** azaltzen du Biodibertsitatea zer den eta zer eginkizun betetzen dituen, argazki, ikus-entzunezko, muntaketa interaktibo eta in situ bisiten bitartez. Erakustokiak bisitatu ondoren, Madariaga Dorreko begiratokira igo daiteke. Bertatik, ikuspegi zoragarri batez gozatuko dugu, Izaro uharte, Laidako hondartza eta padurako xehetasunak kataloga eta binokularren bitartez deskubrituz.

10

Gernikako ezinbesteko bizipenak...


1 Urriko Azken Astelehena

Erdu eta kontatu



5 Urdaibai Gernikatik oinez

Zentzumenentzako paseo bat



6 Urriko Lehenengo Asteleheneko abeltzaintza-azoka

Maila goreneko desfilea. Abereen pasarela aparta




7 Gernika shopping

Denetarik zure esku



2 Jai Alai

Zesta punta, munduko frontoirik onenean




3 Gernikako piperrak eta indabak sakramentu eta guzti

Proba eta gozatu



4 Babesleku antiaereoak

Gernikako bonbardaketaren lekukoak



8 Euskal Jaia

Euskal jai eta kultura: dibertimendua nortasunarekin




9 Gernika Bakearen Aldeko Hiria sariak

Apirilaren 26a. Bonbardaketaren urteurrena



10 Iparraldeko Ibilbidea

Gure Done Jakue Bidea. Bide on!





GERNIKA TURISMOA

Artekalea, 8

946 25 58 92

www.gernika-lumo.net

